



2. jarduera: Komikia eta aurrezagutzak

Izena: Data:

KOMIKIA: "Badoa... badator!"

1. Adieraz ezazu hurrengo esaldietatik zeintzuk azaltzen duten komikian gertatzen dena eta zeintzuk ez.
 - a. BAI/EZ Andereñoak ikasturteko azken proiektuaren berri eman die Intza, Jon eta gainerako taldekideei.
 - b. BAI/EZ Datorren ikasturtean LHko 1. maila egingo duten haurrei aurkezpen bat egin beharko diete 6. maila bukatzen ari direnek.
 - c. BAI/EZ Udaberriaren eraginez erdi gaixorik dabilta taldekide gehienak.
 - d. BAI/EZ Jolastordu garaian Intza ogitartekoa eroatera joan da.
 - e. BAI/EZ Ikasturte amaierako jaialdian nola mozarrotu erabaki ezinik dabilta.
 - f. BAI/EZ Uxue maiteminduta dago, baina ez daki nola adierazi bere sentimenduak.
 - g. BAI/EZ Azken urteotako argazkiei begiratzea erabaki dute LHn egin eta bizitakoak gogora ekartzeko.
 - h. BAI/EZ Jonek bere arrebatxoa jaio dela jakin du.

2. Ondoko hiru esaldietatik, zeinek adierazten du ondoen komikiaren eduki nagusia?
 - a. Lagun taldea argazki zaharrak ikusteko elkartu da.
 - b. Prestatu beharreko proiektu berria ezagutu eta LHn egindakoak gogoratzen hasi da lagun taldea.
 - c. Jonek arreba berri bat izan du.

3. Ondoko hitzen artetik, zeinek adierazten du komikiaren gaia?
 - a. LHko bizipen eta oroitzapenak.
 - b. Bizitzaren hasiera eta amaiera: jaiotza eta heriotza.
 - c. Udaberriaren eragina pertsonengan.



4. Aukera ezazu beltzez nabarmendutako hitz eta esaldiei komikian dagokien esanahia.

4.1. "Gustura egoten ginen **biok biotara** txokolatea hartzen."

- a. Bata bestearen kontra.
- b. Ordu biak arte.
- c. Biok elkarrekin.

4.2. "Jesus, neska, eta zer esan behar diozu, bada? **Doluminak** eman eta kito!"

- a. Barkamena eskatu.
- b. Atsekabea eta elkartasuna adierazi.
- c. Eskumuinak edo goraintziak eman.

5. Uxuek triste dagoela esatean Ibrahimnek "Jakina" erantzuten du. Zer adierazi nahi du horrekin?

- a. Ikastola guztiak dakiela Uxue triste dagoela.
- b. Uxue oso neska jakintsua dela.
- c. Tristezia gauza arrunta dela horrelako egoera batean.

6. Zergatik dago triste Uxue?

.....

.....

7. 5. orrialdeko lehenengo biñetan "Uxue, zer... zera...non da Intza?" esaten du Maddik. Zergatik hasten da hitz totalka?

- a. Ahaztu egin zaiolako galdetu behar zuena.
- b. Ez delako ausartzen galdetu nahi duena galdetzera.
- c. Uxue nola sentitzen den jakitea baino Intza non dagoen kuxkuxeatzea nahiago duelako.



8. Zerekin izango du lotura hartidura hitzak?

- a. Ogia egiteko prozesuarekin.
- b. Ikasketa-bidaia prestatzearekin.
- c. Hartzen eta beste piztia batzuen elikadurarekin.

9. 5. orrialdeko 2. biñetan mutiko gazteenaren hitzak elkarri lotutako bi globo desberdinetan agertzen dira. Bestalde, mutikoaren buruaren inguruan marratxo batzuk ageri dira. Zer adierazi nahi da guzti horrekin?

.....

.....

10. Zer gertatu da 4. orrialdeko 5. biñetan?

- a. Andereñoak "Txirriing!" hitza idatzi du arbelean saioa bukatu dela adierazteko.
- b. Jolastordua iragartzen duen txirrinaren hotsa entzun da.
- c. Ikasleek aulkiak mugitzean zarata eta zalaparta sortu dute.

11. Hainbat biñetatan aurreko urteetan Txanelako liburuetan ezagutu dituzun pertsonaiak ageri dira: Maddalen eta Fermin; Xabier, Mei Li eta Mainer. Irakur itzazu arretaz euren hitzak eta erantzun: zein da istorio honetan duten funtzio nagusia?

- a. Istorioa luzatzea.
- b. Istorioari umore ukitu bat ematea.
- c. LHko hainbat proiektu eta une gogoratzen laguntzea.

12. Komiki honek baditu hainbat ezaugarri berezi: beste urte batzuetako pertsonaiak, ezohiko azken biñeta... Zer iruditu zaizu? Azal ezazu zure iritzia eta arrazoitu.

.....

.....

.....



13. Azkenik, errepara iezaiozu berriro ere izenburuari: "Badoa... badator!". Zer ote da badoana? Eta badatorrena?

.....

.....

.....